



BIZKAIBUS-EUSKOTREN

PRIBATIZAZIORIK EZ!!



Servicios públicos de calidad, para tod@s

El servicio de carretera (Autobuses de Bizkaibus) con múltiples destinos y base de trabajo en Leioa lleva más de 25 años siendo prestados por la empresa pública Euskotren.

En el centro de trabajo Leioa trabajan actualmente entorno 120 personas entre conductores/as, taller y oficinas. De estas, casi la mitad tiene contrato temporal, y muchos de ellas/os en fraude de ley, ya que llevan más de tres años trabajando en el mismo puesto de trabajo.

En breve vamos a ver como estos servicios van a salir a concurso público, existiendo un interés de la Diputación Foral de Bizkaia y Gobierno Vasco en privatizar este servicio, y entregarlo a una explotación privada. Con la excusa de << una libre competencia mejorará la calidad de estos servicios cara a las y los usuarias/os>> pretenden vender estas concesiones al mejor postor.

Y una vez en manos privadas, dejarán, poco a poco, que sean los márgenes de beneficio los que gestionen

exclusivamente estos servicios, sin importar la oferta que se traslade a las y los usuarias/os. Además, a la gestión privada, tampoco le importa el futuro de las familias de las y los trabajadoras/es que actualmente forman la plantilla de este servicio público con centro de trabajo en Bizkaia, y que da servicio a miles de viajeras y viajeros de Bizkaibus en la comarca de Eskumaldea y UPV con distintas localidades.

Desde ELA queremos trasladar la urgencia de proteger estos servicios frente a quien apuesta por la privatización en un momento donde queda más que evidente la necesidad de apostar por los servicios públicos de calidad. Por todo ello, solicitamos a la Diputación Foral de Bizkaia que intervenga, para que se siga manteniendo la gestión pública de este servicio de Bizkaibus, ya que tanto la sociedad, usuarias/as y los trabajadores/as, apostamos por ello. Desde ELA vamos a llevar a cabo cuantas acciones sean necesarias para defender la actual prestación y gestión pública de este servicio de Bizkaibus.





BIZKAIBUS-EUSKOTREN PRIBATIZAZIORIK EZ!!



Kalitatezko zerbitzu publikoak, denontzat

Bizkaibus zerbitzuak herri eta auzo asko lotzen ditu, bidaiariak garraiatuz. Zerbitzu horretako lantoki nagusia Leioan dago, eta 25 urtez baino gehiagoz Euskotren enpresa publikoaren ardurapean egon da.

Leioako lantokian 120 inguru langilek dihardute (gidariak, bulegariak eta tailerretako beharginak). Haietatik ia erdiek aldi baterako kontratua dute, lege-iruzurrean egina kasu askotan, zeren hiru urtez baino gehiagoz daramate lanpostu berean.

Denbora gutxian zerbitzu hori lehiaketa publikoan eskainiko da, eta bai Bizkaiko Foru Aldundiak, bai Eusko Jaurlaritzak zerbitzua pribatizatzeke asmoa dute, enpresa pribatu baten esku uzteko. "Lehia askean zerbitzu horien kalitatea hobetuko da erabiltzaileentzat", hori diote aitzakia gisa, baina diru gehien eskaintzen duenari saldu nahi diote.

Eta behin esku pribatuetan utzita, apurka-apurka diru-etekinak bilatzea

izango da zerbitzuaren helburu nagusia, erabiltzaileei ematen zaien zerbitzua kontuan hartu barik. Gainera, kudeaketa pribatuari ezer gutxi axola zaio oraingo langileen familien etorkizuna. Eta zerbitzu publiko horrek orain arte Bizkaibuseko milaka bidaiari garraiatu ditu Eskumaldean zehar eta EHUtik hainbat herritara.

ELAk adierazi nahi du premiazkoa dela zerbitzu hori babestea pribatizazioaren aldeko apustua egiten duenaren aurrean. Orain, gainera, inoiz baino argiago dago kalitatezko zerbitzu publikoen aldeko apustua egin behar dela, eta merezi duela. Horregatik guztiagatik, Bizkaiko Foru Aldundiari esku hartzeko eskatzen diogu, BIZKAIBUSen zerbitzuaren kudeaketa publikoari eutsi diezaion. Gizarteak, erabiltzaileek eta langileok horren alde egiten dugu. ELAren aldetik Bizkaibus zerbitzuaren egungo prestazio eta kudeaketa publikoari eusteko behar diren ekintza guztiak egingo ditugu.

